

HIZKUNTZAREN ETA LURRALDE TASUNAREN PROBLEMATIKA AZKEN 200 URTEETAN IPARRALDEAN

Piarres Charritton

1999ko azaroaren 27an, Manex Goihenetxek oroitarazten zigun, Euskaldunon Egunkaria-n, aurten 200 urte zendu zela, Uztaritzen, 1799ko azaroaren 16an, Dominique Garat, beste Dominique Joseph Garat politikari eta idazle ezagunaren anaia gehiena.

Dominique Garat hau ere, 1735ean Uztaritzen jaioa, norbait izana zen bere sasoiaren eta, bai Lapurdiko deputatu egon zelarik, Parisen, 1790ean, bai Uztaritzeko auzapez izendatu zutelarik herritarrek, bere azken urteetan, beti bere euskaltasuna erakutsi zuen, batetik, Parisen Euskal Herriko departamendua eskatuz, bestetik Uztaritzen irakasle elebidunak hautatuz. Eta funtsean, zioen Manex Goihenetxe historialariak, "Lurraldetasuna eta hizkuntza nortasuna: 200 urteen buruan problematika beraren aurrean gara".

Hain luze daramagun guduka horren xehetasunetan sartu gabe, egundainotik Iparraldearen historiak kezkatu duen Txillardegi adiskidearen ohoretan nahi nituzke orain hemen XX. mende honetako bi gertakari soil aipatu: lehen 1919an, 14-18ko gerlaren ondotik, Frantzia garaile handios atera zelarik; bigarrena, berriz, 1941ean, 40eko erauntsiaren ondorioz, Frantzia hura bera suntsitua ikusi genuelarik, bi gertakariak Iparraldean gertatuak, eta euskara guti dakiten gure historialariek, nik dakidala, ez bilduak.

* * *

Lehen *gertaldia*, bada, antzerkigileen hiztegia erabiltzeko, erranen dugu 1919ko irailaren 30ean *jokatu* zela, Euskalzaileen Biltzarrak Donibane Garazin egin zuelarik, 1913az geroztikako bere lehen bilaldia.

Martin Landerretxe aphezak, Biltzar-lagun bethiereko Iskribariak eta Euskaltzaingoko edo Euskal Akademiako hamabietarik batek kondatu digun bezala, biltzar lanak hasi aitzin, hiri buruzagiek eta hekien artean Batita Anxo kantonamenduko Kontseilari jeneralak, batetik, Etienne Decrept biltzar buru lehenak eta haren buruzagi lagunak, bertzetik, agur eta jendetasun hoberenak egin ziozkaten elgarri. (Ikus *Euskalzaleen Biltzarraren* 1919ko urtekaria).

Sarrera hitzaldia frantsesez egin zuela Etienne Decrept-ek, bere berrogoita hamar euskaltzale lagun *khartsuen* aitzinean, aitortzen digu idazkariak, nahiz gerla denboran hil edo zauritu lagunak aipatzean, hala nola, Clément d'Andurain eta Georges Lacombe bi adiskide euskaltzaleak, gogorki kondenatu zituen iragan gerlako bost urte luzeetan gertatu izigarrikeria mota guzikiak zuzenetsi eta berdin gorai patu nahi izan zituzten hizlari edo idazle ahoberokak, berek arauz seme bat gerlan galdu ez zutenak.

Gero Diriart notariak eman kontuen ondotik, lerro lerro agertzen dira 1914eko zeingehiagoketan beren euskarazko lanentzat sariak irabazi zituzten ikasle edo irakasle tipi eta handien izenak.

Iskribariak aipatzen ditu oraino zuzendaritzaren bizpalau xede berri, hala nola, Baionako jaun apezpikuari eskatzeko erabakia Jean Saint-Pierre bezalako euskaltzale argitu batek Seminario Handiko apezgaiei euskara apur bat irakats diezaie, edo Jaun prefetari galdetzekoa Paristik eta behere horitarik osasun bila datozen mutiko eta neskato kanpotarrak bertze eskualde batetara igorriak izan daitezten, zeren eta *boz-emaileen lerroa kanpotar izenez egunetik egunera betetzenago baita* (sic).

Gomendatzen dira ere Jean Pierre Etcheverry lotinant hazpandarrak euskaraz egin berri duen laborantzako liburuaren zabaltzea, edo Etienne Decrept eta Charles Colinek ontu dituzten eta *goretsi beharrik ez duten tragedien* aurkezteko baliabideen biltzea.

Azkenean, Georges Lacombe jauna mintzatzera doalarik, hona non sartzten den bilkurarat J.B. d'Arroquain biltzarkide mauletarra, berekin dakarrela Mauleko jaun suprefeta.

Mauletarrei ongi etorria egin ondoan, gerlan besoa galdurik itzulia den Georges Lacombe lotzen zaio bere solasari: Parise gain horietan mintzo omen dira, departamendu edo eskualde bakoitzari botere apur bat uzteaz, bere bizi-pide bereziaren araberrako erabakiak har ditzan. Horri darraikola, Biltzarraren burulehen ohiak galdatzen du *ez ote laitekeen eskatzen, eta menturaz ardiesten abal, gure Euskal Herriarentzat ere, bere kide berezi baterat baztertze ko urratsa*.

Horretan, jaun suprefeta mintzatu da erranez “Euskal Herri hedadura gutitako honek, bere ona eta hoberena lukeela, kanbiorik balitz ere, bera baino gehiagoko eta aberatsagoko eskualdeen batasunean egotea eta hartan egotea, Bordale lukeelarik hiri nausitzat, eta hego-mendebal alde hautako lazapabortz departamendu aberatsen batasuna”.

“Solas hoik guziak onartu dira eta (Decrept) burulehenak erran du, jaun suprefetaren xede bereko laitekela. Hortan, dio Landerretxe iskribariak, bururatzat utzi dira egitekoak eta hitzartu da, guzien nahitik, iragan urteko biltzar buruzagi berak atxikitzen direla datorren urteko”.

Eguerdi baitzen, biltzarkideak lehiatu omen ziren Jaime hotelean janaldi hautuko baten egiterat. Gero arratsaldea luzatu zuten kantu zaharrak xaramelatuz eta, artetik, Ixaka Mendizabal eta Jose Eizagirre, Tolosako bi abokat gazte suharren neurtitzak eta mintzaldi sarkorrek entzun ziren eta handizki txalotu.

Decrept-en ondotik, Jose Eizagirrek berak hartu behar zuen laster Euskaltzaleen buruzagitza, eta gero, bat bestearen ondotik Jean Etxeparek eta Louis Dassancek, bainan ez zuten engoitik Biltzarraren buruzagi bihi baten prosak ez bertsoek sekulan gehiago Errepublika kordokatu: hain gogorki zion alabaina, lehen aldian berean, Mauleko suprefetak ahoa hetsi botza altxatu nahi izan zuen Georges Lacombe gerlari ohi eta ameslari ausartari!

* * *

Hogoi bat urteren buruko bizkitartean, ustegabeko itzulipurdia egin beharra zuen hain tinko eta umil Frantziako euskaldunak atxiki zituen III. errepublikak. 1940ean, Vichy-ko hirian jarri zen Pétain marexalaren frantses estatuak nahi izan zuen berriz eskualdekatu alemanek gobernatzera uzten zioten lur eremua.

1941eko udaberrian heltzen da beraz zurrumurrua Baionara eta maiatzaren 23ko *Eskualduna* astekarian, Piarres Lafittek berak, berreskuratuz *Aintzina* zenaren lema “*Eskual Herriaren alde*”, artikulu luze bat bidaltzen dio, gutun itxuran, baitezpada adiskide ez duen Xalbat Arotzarena *Eskualdunaren* zuzendariari.

Jakin behar da alabaina, Pétain-ek berak, Lafitten arabera “*aspaldion errana duela zer zaion hoberena: naturalezak, odolak, mintzaireak, ohidurek manatzen duten bezala*” erresuma kudeatzea. Bainan haren inguruko ardurdunen artean badaiteke orotarik: adibidez, batzordeburu jarri duten Lucien Romier delako batek ez omen dio ekonomiari baizik behatzen. Joseph Barthélémy justizia sailburua, berriz, lehenagoko herrialdeen hausteari dago,

Frantziaren batasuna baitu bakarrik gogoan. Beharrik bada ere han gaindi gizon bat, Charles Brun, euskalzale egiazkoek estimatzen dutena eta hau “gu bezalatsu mintzo da” holetan. “Bainan behar luke nonbaitik laguntza poxi bat; lauzkatu behar genuke, larderia gehiago izan dezan eta haren erranari beha daitezen”.

Artetik errateko, *Aintzinaren* sortzailea lehenagotik harremanetan zen Charles Brun horrekin, kooperatibismoaren aitatzat baitzeukan jadanik gure irakasle zenak, haren ikasle ginelarik guhaur Uztaritzen.

Dena dela, oraiko aldian, gobernamenduak berak gogotik hartuko dituenaz geroz eskualde guzietarik igorriko dizkioten kontseiluak eta galdeak, “desohore ginuke galde horri ez bagenio ihardesten Euskal Herritik, ez axolez edo ez balioz”. Jakin eta gainera, jadanik hasiak direla iratzartzen, Britainian eta Flandrietan.

Eta zeren galdez behar dute euskaldunek mintzatu? Lehen lehenik galda bezate ez ditzaten lehenagoko herrialdeak suntsi; ez bereiz Zuberoa beste bi euskal herrietarik, baina hiruak bil elkarrekin, Baiona dutela hiriburua. Galda euskara izan dadin eskoletan irakatsia eta etsaminetan onartua. Galda, ahalaz, euskaldunak ezar ditzaten beren egitekoetan nausi, eta holako...

ESKUALDUNA sortu zutenek, Euskal Herriaren onetan egin baitzuten, haren argitzaile eta sustatzaile izateko, artikulugilearen ustez euskal aste-kariari doakio oraikoan Euskal Herriaren galdeak biltzea eta gobernura helaraztea.

Ondoko hilabetean, hots, ekainaren 6ko eta 20ko *Eskualdunaren* bi zenbakietan, Xalbat Arotzarena zuzendariak berak bere gain hartzen du Piarres Lafittek harrotu duen eskualdekatzearen gaia.

Baina lehen lehenik gogoratu nahi du “aski garbi eta aski gora, eta behin baino gehiagotan, altxatu izan dela mendi haindi-honaindian Euskal Herriaren bere gain jartzeko ametsaren kontra eta, beraz, ez duela nehork erraten ahalko galdatzen duena galdatuz baduela gibel gogorik edo beste sabeleko minik”.

Zer du bada galdatzen Arotzarenak, hauxe baizik ez: “Euskal Herriak izan dezan Frantzia berrian bere begitarte”. Arima berezi bat badu alabaina gure Herriak. “Gu ezagutzen gaituzten guztiek aitortzen dutena da: Euskaldunak ez garela besteen idurikoak. Norat nahi joan dadin, Euskaldunak bere traka berezia badu... bere eskuairea... bere gauzei behatze-ko moldea; hala nola baititu bere mintzaira eta ohidurak”.

Eta honela amaitzen da lehen artikulua: “T tipi izanagatik eremuz, Euskal Herria zerbait da arimaz. Behar zaio utzi bere begitartea: merezi du! zor diote!”.

Bigarren artikulua jakinarazten digu *lehen urrats bat* egin dutela mendiz honaindian euskararen eta herri ohiduren zaintzeari aspaldion bermatzen diren hiru batasunek: *Euskalzaleen Biltzarrak*, *Gure Herriak* eta *Eskualdunak*, Darlan amiralari gutun bat bidali diote adierazteko garbiki zer nahi duten Frantziako euskaldunek: Ez ditzatela bederen Iparraldeko hiru probintziak elkarretarik bereiz eskatzen dute, eta herrialde hau bere gain uzteko tipiegi balitz, *3 B* deitu eskualdean, hots, *Pays Basque*, *Béarn*, *Bigorre* hiru aldeak bil litzakeen elkargoan sar dadiela, baina bere begitarte berezia atxikiz.

Piarres Lafittek argitaratzen du *Hiruak bat* deitu artikulua ondoko aldian, ekainaren 27an. Hor salatzen du Charles Brun adiskidearenganik jakin dela berria: uztailaren 25 ean Vichy-ko batzorde berezi batek aurkeztu behar dio bere proposamena eskualdekatzeari buruz Pétain marexalari. Honek duke azken hitza eta, beraz, marexalari berari behar lirokete euskaldunek, lehen bai lehen, beren deia helarazi.

Gutun eredu bat ere eskaintzen die artikulugileak bere irakurleei eta uztailaren 4ko zenbakian gutun hori bera berrargitaratzen du astekariak, jakinaraziz *Eskualdunak* Baionatik Vichy-ra helduko duela Euskal Herritarren mezua.

Irakurleak, ordea, uzkur daude, bizpalau gutun, doi-doia, etortzen dira Iholditik eta Bankatik. “Eta besteak... Lo zauztea?”, galdatzen die Arotzarenak 11ko zenbakian, denbora badoa, alabaina, eta uztailaren 25a laster daiteke etorria.

Iratzartu, bai, *iratzartu* dira beharrik euskaldunak, uztailaren 18ko artikulua arabera. Zuzendariak dioenez, alde agertu dira Baionako gurlari ohiak, Lasako, Azkarateko, Urruñako herritar zerrenda luzeak, bai eta ez jakin nongo presonier ohiak ere.

Horrenbestez iragaiten da, beraz, uztailaren 15a eta geroztik, beste egun, aste eta hilabete asko ere bai, Frantzia berriaren eskualdekatzeaz deus berririk nehondik agertu gabe.

Azaroaren 21eko artikulua batean Piarres Lafittek aditzera uzten du aitizneko udaldian Vichy-rat igorri letrak aspaldian engoitik ahantziak direla, han nonbait errautsak janik. Marexalak eta Darlanek bestalde ez ditzute omen lan guztiak tiletez-tilet segitzen ahal, peko batzuei behar dizkie asko gider utzi eta beraz herrigizonek behar lukete peko horiei begia atxiki, Britainiatik egiten zaien bezala, aski usu Vichy-raino itzuli bat eginez, alegia “beilari”.

“Non ditugu ordea Euskal Herriaren begirale bipilak? Zenbat deputatu ala senatore ikusi ditugu hemendik Vichy-ra ibiltzen herriaren intresen alde?”, galdatzen dio bere buruari Piarres Lafittek, eta etsituxe berak ihardesten: “Euskal Herriaren alde nehor ez. Egia dautzuet: petzero egonen garela”.

* * *

Eskualdekatzearen solasa horretan isildu baldin bazen 1941eko udazkenean, deus berririk sortu gabe, euskararen aldeko urrats ttipi-ttipi bat egin zen bizkitartean garai beretsuan gure eskualdean.

1942ko urtarrilaren 9an, *Eskualdunak* jakinarazten du alabaina, Vichy-ko gobernuaren lege berri batek “euskara haizu” uzten duela Frantziako eskoletan.

Ondoko astean berean, urtarrilaren 16ko zenbakian, Piarres Lafittek luma hartzen du lege berriaren ondorioak zehazteko, gai beretsuen inguruan zenbait aste lehenago, euskaraz eta frantsesez, uztailaren 25ean, urriaren 10ean eta abenduaren 19an *Herriaren ezagutzaz*, *Eskualdeko irakaskuntzaz*, eta *Euskarazko katiximaz* erabiliak zituen solasei jarraikiz.

Gure irakasle zenak errana zuen lehenago Euskal Herriko historia eta geografia apur bat behar luketela ikasi Euskal Herriko ume guziek eta atseginekin jakin du orai jakitate hori etsaminetan ere baliagarri duketela beren ama hizkuntza bezala. Eskerrak igorri ondoan Vichy-rat Carcopino jaun ministroari, “euskarari egin dion fagore handiaren gatik” (sic), ikusi behar da *nola hobekienik balia eskola orenez landa eskaintzen den asteko ordu eta erdi hura*.

Errient batekin mintzatu eta, iduritzen zaio Piarres Lafitteri, oren laurden bat euskara emaita egun guziez, arratsaldean, eta oren-erdi bat larunbatetan ontsa litekeela. Zeren irakasteko, ordea? Lehenik euskal hitzak eta izenak, gero, haurrek ikas dezatela irakurtzen eta izkiriatzen, bai eta kantatzen ere. Irakasleak berak euskararik ez badaki hel egin diezaiola beste norbaiti.

Donibane Lohizuneko kontseiluak eman du jadanik diru apur bat euskara irakasleen laguntzeko. Bestetan ez ote daiteke beste hainbeste egin? Euskaltzaleen Biltzarrak iratzar ordu luke, argi galdez daudenen argitzeko, batzuen eta besteen entseguen batetartzeko eta, hala beharrez, nagien eta alferren akulatzeko. Nahiz ez den Eskualduna errient-erriensa ororen kazeta, ez hurbiltzekorik ere, ariko da hau ere bere aldetik bere doia eskaintzen eta gaiari doazkon ideia eta kontseiluen biltzen.

Honetan bururatuko da Lafitten eta Arotzarenaren arteko lankidetzaren euskal lurraldetasunaren eta kulturaren alde Vichy-ko gobernuaren eretzera, bizkitartean 40ko hamarkada horretan bada oraino beste auzi bat Lafitte apezak aipatu gabe utz ez dezakeena, eta alemanen denborako Arotzarenaren astekariari, 1942ko urtarrilean, igorriko dion azken artikuluan agertzen dena.

* * *

Euskarazko katiximaren gaia da auzi hori, jadanik aipatua izana, buraso zenbait hasiak baitziren bere apezaren kontra, galdutuz zer behar zuten Euskal Herriko apezek euskarazko katixima haurrei inposatzen ari izanik? Ez ote zuten denetan bezala frantsesez ematen ahal?

Lafittek ihardetsia zioten bipilki 1941ko abenduaren 19ko zenbakian. 1942ko urtarrilaren 23ko zenbaki honetan, ordea, honela lotzen zaio berriz auziari: "Errana dugu nola etxekandere batzu arizan diren zernahi erranka katixima euskararen kontra. Heien arrazoinak altxatu genituen, bat salbu: apezek euskararen medioz jendea azpitik atxiki nahi dutela. Hori da hori gaiztoa eta pozoin izatea! Mintza gaitezen arrazoinaz eta gizonki!".

Eta horra nola Uztaritzeko gure irakasle zenak ihardokitzen zuen Baionako diosesian populkatzen hasiak ziren jaun-andere erdalzalei: Ez, apezek ez die euskaldunei euskaraz eskaintzen bere erakaspena mesprezioz, baina bai errespetuz.

Irakaslegoan iragan dituen hamalau urteek erakutsi diote Lafitte-ri berrari erdaraz eskolatu nahi duen euskaldunak biziki fiteago eta barnago ikas dezakeela euskaraz emaiten badiote eskolako erakaspena. Zer gertatzen da frantses hutsean egiten den eskolatan? Haurrak eskoil eta gibel egoiten direla.

Bai badira erdaraz eskolatu ikasle euskaldunetan ikasle harrigarriak, baina horiek ere beren odol-mintzairean hobeki ikasiko zuten, jakitate mamitsuagoa bilduko eta, gainera, sekula ez dute hatxemanen frantsesarekin galdu denbora.

Eta eskolatan euskararik entzun nahi ez duten erdalzaleei argudio hau bihurtzen die irakasle euskaltzaleak: "Behin baino gehiagotan egona naiz gogoeta zertako bortxatzen gaituzten frantses hutsean haurren eskolatzera. Nago Pariseko handi-mandiek ez ote duten Frantzia bazterretako jendea eskoil eta gibel atxiki nahi, haien herbaitzeko eta kraxturitik bezala abere bartzuen pare kudeatzeko".

Azken buruan, beraz, Lafitteren arabera, euskarazko katixima egiten zuten apezek ez zituzten beren ikasleak mendratzen, bainan bai handitzen eta Euskal Herriko errient-errientsek euskaraz eman balituzte beren irakaspenak,

ez zitezkeen haien haurrak maiz gertatzen ziren bezain gibelatuak. “*Frantsesa ere biziki garbiago zuketan euskararen bitartez ikasiz. Horra egia! Gaineratiko murmurika eta pleinu guziak ez dira gaiztakeria edo urguilu zozo baizik!*”.

* * *

Azken mende erdi honetan anitz gauza aldatu dira Iparraldeko herri ta hirietan, eskoletan eta katiximetan, baina iduritu zaigu Eskualduna xahararren azken zenbakietan, alemanen denboran agertu pasarte horietarik zenbaitek merezi zutela berrirakurketa baten egitea, *menturaz gaur beste itxura bat hartu duten baina beti hor dirauten arazo batzuen argitzeko. Post Scriptum: Gaur hori, 1999ko abenduaren 23an zen Baionan artikulua hau idatzi nuelarik.*

Gaur egun, ordea, 2002ko azaroaren 19an, testu bera argitaratzera doalarik Frantziako gobernu berri batek, Jacques Chirac-en Raffarin, Sarkozy, Alliot-Marie eta beste ministroen estatua eskualdekatu norhi omen dutelarik, gure Iparraldeko hiru probintzien deiadarrari entzungor egiteko argudio berak eskaintzen dizkigute: “hedadura gutitakoak eta tipiegiak omen gara!”.